BARAKALDO ANTZOKIA TEATRO



IRAILA-ABENDUA 2018 SEPTIEMBRE-DICIEMBRE **#75**

AURKIBIDEA / ÍNDICE

	IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO	**KONPAINIA** / COMPAÑÍA
IRAILA / SEPTIEMBRE		
27		AUPA QUARTET
URRIA / OCTUBRE		
5	**MAN RAY**	TAIAT DANSA
6	**¿QUIÉN ES EL SR. SCHMITT?**	BARCO PIRATA PRODUCCIONES TEATRALES
13	**RHÜMIA**	RHUM & CIA
19	**AUKERAN 20 URTE**	AUKERAN DANTZA KONPAINIA
20	**MALVADOS DE ORO**	APATA TEATRO
27	**PSS PSS**	COMPAGNIA BACCALÀ
AZAROA / NOVIEMBRE		
9	**GROWING YOUNG**	DANTZAZ
10	**IZOZTUTAKO HAIZEA BEZALA**	TANTTAKA TEATROA
11	**NO TE CREAS LA VERDAD**	TONI BRIGHT
17	**MUGAK**	KHAMI & KALAKAN
18	**ÓSCAR, EL NIÑO DORMIDO**	EL ESPEJO NEGRO
24	**INTENSAMENTE AZULES**	ENTRECAJAS PRODUCCIONES TEATRALES
30	**CIRCO DE PULGAS**	MATARILE TEATRO
ABENDUA / DICIEMBRE		
21	**MUSUA**	PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

La Red eta Sareako batzorde artistikoek gomendatutako ikuskizunak
Espectáculos recomendados por las comisiones artísticas de La Red y Sarea

IKUSKIZUN FAMILIARRA
ESPECTÁCULO FAMILIAR

Ikuskizun antolatzailekidetuta / Espectáculo coorganizado por

GENEROA / GÉNERO	**ORDUA** / HORA	**ORR.** / PÁG.
MUSIKA / MÚSICA	20:00	4
DANTZA / DANZA	20:30	6
ANTZERKIA / TEATRO	20:30	8
ZIRKUA / CIRCO	19:00	10
DANTZA / DANZA	20:00	12
ANTZERKIA / TEATRO	20:30	14
CLOWN	19:00	16
DANTZA / DANZA	20:30	18
ANTZERKIA / TEATRO	20:30	20
MAGIA / MENTALISMO	19:00	22
MUSIKA / MÚSICA	20:30	24
TXOTXONGILOAK / TÍTERES	19:00	26
ANTZERKIA / TEATRO	20:30	28
DANTZA-ANTZERKIA / DANZA-TEATRO	20:30	30
PAILAZOAK / PAYASOS	17:00 / 19:30	32

JARDUERA PARALELOAK / ACTIVIDADES PARALELAS	34
ASTEAZKENETAN ZINEMARA / MIÉRCOLES DE CINE	35
ESKOLA KANPAINA / CAMPAÑA ESCOLAR	36
GURE ESZENA / ESCENA LOCAL	37
BESTE EKINTZAK / OTRAS ACTIVIDADES	38
GABONALDIA / NAVIDAD EN EL TEATRO	39
BARAKALDOKO ANTZOKIKO LAGUNAK / AMIGAS/OS DEL TEATRO	40
INFORMAZIO PRAKTIKOA / INFORMACIÓN PRÁCTICA	42
NORTZUK GARA / QUIÉNES SOMOS	43

AUPA QUARTET
(CATALUÑA)

DENBORALDIAREN AURKEZPENA PRESENTACIÓN DE LA TEMPORADA

Soka-laukote hau munduko hainbat lekutako musikariek osatzen dute. Bartzelonatik, errepertorio berria eta estilo indartsu oso pertsonal bat ematen diote egitura klasikoari. Lehen diskoa argitaratu zutenetik (Up, 2015), buru-belarri ari dira bigarren diskoa prestatzen, eta nazioarteko areto eta jaialdi garrantzitsuetan jotzen dabiltza.

Musika klasikoari uko egin gabe, AupaQuartet taldea groove-aren, jazzaren, funkaren, rockaren, Kubako sonaren eta flamenkoaren doinuetan murgiltzen da.

Haien melodia itsaskorrek eta inprobisazio grinatsuek ongi etorria emango diote Barakaldo Antzokiko denboraldi berriari eta zutik paratuko dituzte ikus-entzuleak. Aupa!

Este cuarteto de cuerda está formado por músicos de diferentes lugares del planeta que, desde Barcelona, aportan a la formación clásica un repertorio nuevo y un estilo energético muy propio. Tras su primer trabajo discográfico, "Up" (2015), se encuentran inmersos en la preparación del que será su segundo disco mientras recorren destacadas salas y festivales del panorama internacional.

Sin renunciar a la música clásica, Aupa Quartet se pasea por diferentes ritmos del Groove, el Jazz, el Funk, el Rock, el son cubano o el flamenco.

Contagiosas melodías enriquecidas con apasionadas improvisaciones que harán que el público se ponga en pie para dar la bienvenida a la nueva temporada en el Teatro Barakaldo. ¡Aupa!

60 min.

MUSIKARIAK / INTÉRPRETES: Asier Suberbiola, Pere Nolasc Turu, Felipe Escalada, Martín Meléndez

aupaquartet.com
Aupa Quartet
@aupaQUARTET



MUSIKA MÚSICA

27
IRAILA SEPTIEMBRE
20:00

GONBIDAPENAREKIN
CON INVITACIÓN

MAN RAY
TAIAT DANSA (VALENCIA)

Man Rayk dantzarekiko sentitzen zuen miresmena ez da oso ezaguna. Marcel Duchampekin batera, dadaismoa sortu zuen; surrealismoaren aitzindarietako bat da, XX. mendearen hasierako artista emankor eta nabarmenetako bat.
Taiat Dansaren *Man Raya* argazkilariaren eta haren musen arteko harreman fetitxistan oinarritzen da, eta, bide batez, artista gizonen eta haien modelo emakumeen arteko harreman guztietan, emakumeak batzuetan inspirazio gisa eta beste batzuetan objektu huts gisa ageri baitira halakoetan. Mendekotasunezko harremanak, eldarniozkoak, dardartiak, zapaltzaileak, agindupekoak, grinatsuak, itogarriak... Muturreko harremanak, emakumearen eta haren sexualitatearen irudiaren eta gorputzaren manipulazioan oinarrituak. Artistaren identitate guztiak obsesiboki adierazten dira, gizonen mendeko errealitate bat islatuz. Haien mendeko erregelak eta aparatuak. Haien mendeko begi argazkilariak.
Bretonek esan zuenez, «arterik baldin bada, asaldagarria izango da»; hori esan zuenean, ez zuen imajinatu ere egingo diskurtso surrealistaren asaldura guztietan asaldagarriena Man Rayren kameraren klik-a izango zenik.

No es muy conocida la adoración que Man Ray sentía por la danza. Fundador del dadaísmo junto con Marcel Duchamp y exponente del surrealismo, es uno de los artistas multidisciplinares más prolíficos y destacados de principios del siglo XX, cuya obra gira en torno a la libertad y el placer.
El *Man Ray* de Taiat Dansa se centra en la relación fetichista del fotógrafo y sus musas y, por ende, de todas las relaciones entre los artistas hombres y sus modelos femeninas que unas veces inspiran y otras son simples objetos. Relaciones dominantes, delirantes, trémulas, opresivas, dependientes, apasionadas, asfixiantes... relaciones extremas, de manipulación de la imagen y el cuerpo de la mujer y su sexualidad. Todas las identidades del artista se manifiestan de manera obsesiva reflejando una realidad dictada por los hombres. Por sus reglas, por sus aparatos. Por sus ojos fotográficos.
Cuando Breton declaraba "el arte será convulso, o no será", ni siquiera imaginaba que de todas las convulsiones que vertebran el discurso surrealista la más convulsa sería el click de la cámara de Man Ray.

COPRODUCCIÓN: FESTIVAL GREC DE BARCELONA 2017, INSTITUT VALENCIÀ DE CULTURA, BALLET DE LA GENERALITAT, TAIAT DANSA, SAGUNT A ESCENA 2017 E INAEM

60 min.

KOREOGRAFIA / COREOGRAFÍA: Meritxell Barberá, Inma García eta dantzariekin / en colaboración con las/os bailarinas/es
DRAMATURGIAN LAGUNTZA / ACOMPAÑAMIENTO DRAMATÚRGICO: Eva Zapico
DANTZARIAK / INTÉRPRETES: Cristina Reolid, Cristian Arenas, Miguel Ángel Fernández, Víctor Fernández, Kilian García, Cristian González, Jon López, Joel Mesa, Martxel Rodríguez/Mauricio Pérez
JANTZIAK / VESTUARIO: Estudio Savage

taiatdansa.com
Taiat Dansa
@taiatdansa

JARDUERA PARALELOA: 34. orrialdea ikusi.
ACTIVIDAD PARALELA: ver página 34.



DANTZA DANZA

18€ / 15€

5
URRIA OCTUBRE
20:30

ANTOLATZAILEKIDEA / COORGANIZADOR

¿QUIÉN ES ÉL SR. SCHMITT?

BARCO PIRATA PROD. TEATRALES (MADRID)

Carnero senar-emazteak etxean afaltzen ari dira, lasai, eta, halako batean, telefonoak jotzen du.
Baina Carnerotarrek ez daukate telefonorik.
Solaskide misteriotsuak Schmitt jauna delako batekin hitz egin nahi du... Eta arraroena da Carnerotarrak konturatzen direla beren etxea ematen ez duen etxe batean itxita daudela: koadroak aldatu dira, liburu horiek ez dira beren liburuak, beren armairuetako arropa ez da berena... Izuak bere mendean hartzen du dena: amesgaiztoa hasi besterik ez da egin.
Carnero senar-emazteak Schmitt senar-emazteak ote dira, haiek ez badakite ere?
Nor da eroa?
Nor da egiaren jabe?
Senarra? Emaztea? «Besteak»?
Ikus-entzulea?
Nor da Schmitt jauna?

El señor y la señora Carnero cenan tranquilamente en su casa, cuando de pronto suena el teléfono.
Pero los Carnero no tienen teléfono.
El misterioso interlocutor insiste en hablar con un tal señor Schmitt...
Y lo que es más extraño aún, los Carnero descubren que están encerrados en el interior de una casa que no parece su casa: los cuadros han cambiado, los libros no son sus libros, la ropa de sus armarios no les pertenece...
El pánico se apodera de todo,
La pesadilla no ha hecho más que comenzar.
¿Son acaso el señor y la señora Carnero, sin saberlo, el señor y la señora Schmitt?
¿Quién está loco?
¿Quién está en posesión de la verdad?
¿Él? ¿Ella? ¿Los "otros"?
¿El espectador?
¿Quién es el señor Schmitt?

90 min.
es

EGILEA / AUTOR: Sébastien Thiéry
BERTSIOA ETA ZUZENDARITZA / VERSIÓN Y DIRECCIÓN: Sergio Peris-Mencheta
ANTZEZLEAK / INTÉRPRETES: Javier Gutiérrez, Cristina Castaño, Armando Buika, Xabier Murúa, Quique Fernández

barcopirata.org
Barco Pirata @barcopirataorg



ANTZERKIA TEATRO

6
URRIA OCTUBRE
20:30

25€ / 22€

ESTREINALDIA EUSKADIN
ESTRENO EN EUSKADI

ANTOLATZAILEKIDEA / COORGANIZADOR

RHÜMIA
RHUM & CIA (CATALUÑA)

Rhum eta konpainiaren etxean, beste mundu bat posible da, emozio absurdo, konkretu, imajinatu eta errealez beteriko beste zirku-pista bat. Ez da gertatzen munduko edozein lekutako edozein etxetan gertatzen ez den ezer. Izan ere, zirkua edozein unibertso da, eta etxe bakoitza edonorentzako moduko zirku bat da.
Bost pailazo bikaineko familia honek hainbat genero eta estilo uztartzen ditu: clown-a, bentrilokia, luthier-a, kale-artea, dialogo absurdoa eta musika dira Rhümiaren protagonistak. Kantu bat itxaropenari, gauza guztien gainetik barre egiteko eta barre eragiteko beharrari. Hemen eta han, badakitenei eta bazekitenei eta berriz ikasi behar dutenei. Barrea, zoriontasunaren arma boteretsuena, sudur gorri baten azpian ezkutatuta.

En casa de los Rhum & Cia hay otro mundo posible, otra pista de circo llena de emociones absurdas y concretas, imaginadas y reales. Nada diferente a lo que ocurre en cualquier hogar de cualquier parte del mundo. Porque el circo es cualquier universo y cada casa es un circo donde todo el mundo tiene cabida.
Una familia de cinco payasos excepcionales que abanderan diferentes géneros y estilos como el clown, la ventriloquía, el luthier, el arte de calle, el diálogo absurdo y la música son los protagonistas de "Rhümia", un canto a la esperanza, a la necesidad de reír y hacer reír por encima de todas las cosas. Aquí y allá, a los que ya saben y los que sabían y han de volver a aprender.
La risa, el arma más poderosa de la felicidad, escondida bajo una nariz roja.

«Ikuskizun katartikoa da. Gomendatzen dizuet joatea, eserlekuan lasai esertzea eta gogoari hegan egiten uztea. Ikusiko duzue nola bat-batean barre-zaparrada batek hartuko dizuen gorputz osoa. Ez dago txantxa errazik, ezta umore arinik ere. Ona da, oso ona».
Oriol Toro, El Núvol.

"El espectáculo es catártico. Recomiendo que vayáis, os sentéis tranquilamente en vuestra butaca y os dejéis llevar. Veréis como de repente un río de risas empezará a brotaros por todo el cuerpo. No es la broma fácil, no es un humor ligero, es bueno, es muy bueno."
Oriol Toro, El Núvol.

ZIRKU IKUSKIZUNIK ONENA, ZIRKÒLIKA SARIAK 2016 / MEJOR ESPECTÁCULO DE CIRCO DE LOS PREMIOS ZIRKÒLIKA 2016

90 min.
+6

EGILEA / AUTOR: Rhum & Cia
ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN: Martí Torras Mayneris
ANTZEZLEAK / INTÉRPRETES: Joan Arqué, Roger Julià, Jordi Martínez, Pep Pascual, Mauro Paganini
ZUZENDARITZA MUSIKALA / DIRECCIÓN MUSICAL: Pep Pasqual

rhumicia.com
RHUM @rhumicia



ZIRKUA CIRCO

13
URRIA OCTUBRE
19:00

6€ (-12 años) / **15€** (adultos)

! **AZKEN ORDUKO LEIHATILA**
13-26 urte: %50 deskontua
TAQUILLA ÚLTIMA HORA
13-26 años: 50% descuento

ANTOLATZAILEKIDEA / COORGANIZADOR

AUKERAN 20 URTE

AUKERAN DANTZA KONPAINIA (EUSKADI)

Aukeran dantza-konpainia 1997an sortu zen, Edu Muruamendiaraz dantzari eta koreografoaren ekimenez. Haren hasierako ideia oso definituta zegoen: tradizionalaren eta garaikidearen arteko orekari eustea, planteamendu berritzaileak eginez baina betiere gure kultura errespetatuz.

Orain, 20 urte baino gehiagoko ibilbidea ospatzen ari dira, agertoki gainean, atzera begiratuz baina betiere egindakoa berrikusiz eta eguneratuz, beren azken hiru ikuskizunetan oinarrituta: *Gernika*, *Geltokia* eta *Maurizia*. Dantzari, zuzendari, teknikari eta diseinatzaile lantalde baten ehunka ikuskizun, milaka entsegu eta talde-lanean igarotako milaka orduren esentzia dakar haien proposamenak halako ahalegina aintzat hartu duten ikus-entzuleen aurrera.

Proposamen eszeniko zaindu eta dotore bezain harrigarria.

Aukeran Dantza Konpainia, formada en 1997 por iniciativa del bailarín y coreógrafo Edu Muruamendiaraz, nace con una idea fuerza muy definida: mantener el equilibrio entre lo tradicional y lo contemporáneo, con un planteamiento siempre innovador pero respetuoso para con nuestra cultura.


Ahora celebra sus más de 20 años sobre los escenarios con una mirada retrospectiva, pero a la vez revisada y actualizada, de tres de sus últimos espectáculos: *Gernika*, *Geltokia* y *Maurizia*. Una propuesta que contiene la esencia de cientos de representaciones y miles de ensayos y horas de trabajo en equipo con dantzaris, directores, técnicos, diseñadores y, sobre todo, frente a un público que ha sabido reconocer con su presencia tanto esfuerzo.

Una cuidada y elegante propuesta escénica que sorprenderá.

80 min.

ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN: Edu Muruamendiaraz
DANTZARIAK / INTÉRPRETES: Ane Anza, Garazi Egiguren, Ander Errasti, Ioritz Galarraga, Enerko Galdós, Ione Iriarte, Ekain Kazabon, Oier Laborde, Olatz Oribe, Uxue Urruzola, Itziar Uzkudun, Agustín Martínez
MUSIKARIAK / MÚSICOS: Mixel Ducau, Iñigo Egia, Xabi Solano, Xabier Zeberio

aukeran.com
AUKERAN-dantza konpainia_compañia de danza
@aukeran



DANTZA DANZA

19
URRIA OCTUBRE
20:30

15€ / 12€

DANTZA ZIRKUITUA

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

MALVADOS DE ORO

APATA TEATRO (MADRID)

«Gaiztoa zenbat eta landuago, orduan eta hobea filma»
Alfred Hitchcock

Pertsonaia gaiztoek sortzen duten interesa antzinako eta urrutiko zerbaitek eragina da, eta batzuetan kontrolatu ere ezin dugu egin. Intelektualki zentsuragarriak iruditu ko zaizkigu beharbada, baina badago zerbait geure barruan haien atzetik ibiltzera bultzatzen gaituena. Gizarteak ondo eta txarto dagoenaren artean bereizteko ezartzen duen lerroa legeek dioten baino malguagoa da batzuetan, eta horren adibide ugari aurki daitezke fikzioan, pertsonaien katalogo zabala baitaukagu maitasun-gorroto paradoxaren barruan hunkitzen gaituena.

Aktore bakar bat, prosatik poesiara eta aktoretik pertsonaiara jauzika. Urrezko Mendeko gaizkile anker eta liluragarrien mekanismo, desio eta motor guztiak barrutik eta kanpotik ezagutzera gonbidatzen gaitu, eta, aldi berean, halako pertsonaiak nola antzezten dituen erakutsiko digu, zer baliabide erabiltzen dituen gaizkile bihurtzeko, gaizkile izateko.

"Cuanto más elaborado sea el malo, mejor será la película"
Alfred Hitchcock

El interés que desatan los personajes malvados proviene de algo ancestral, primitivo y lejano que a veces no podemos controlar. Intelectualmente nos pueden parecer censurables, pero algo dentro de nosotros nos obliga a seguirles. La línea que la sociedad determina para discernir lo que está bien y lo que está mal a veces es más laxa de lo que las leyes promulgan y los ejemplos en la ficción son incontables, dando lugar a un inabarcable catálogo de personajes que nos conmueven desde la paradoja amor-odio que les profesamos.


Un único actor viajando de la prosa al verso, del actor al personaje, nos invita a recorrer por dentro y por fuera los mecanismos, los deseos, los motores de los malvados más despiadados y deslumbrantes del Siglo de Oro, a la par que nos muestra cómo encarna él a estos personajes, qué recursos utiliza para convertirse en ellos, para ser ellos.

ALMAGROKO ANTZERKI KLASIKOKO NAZIOARTEKO JAIALDIAK KOPRODUZITUA / COPRODUCIDO POR EL FESTIVAL INTERNACIONAL DE TEATRO CLÁSICO DE ALMAGRO

70 min.
es

ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN: José Bornás
DRAMAGINTZA / DRAMATURGIA: Jesús Laiz
ANTZEZLEA / INTÉRPRETE: Daniel Albadalejo

apatateatro.com
Apata Teatro



ANTZERKIA TEATRO

20
URRIA OCTUBRE
20:30

16€ / 13€

ESTREINALDIA EUSKADIN
ESTRENO EN EUSKADI

PSS PSS
COMPAGNIA BACCALÀ (SUIZA)

Bikainak, samurrak, barregarriak. Chaplin, Keaton edo film mutuen izarretan inspiratuta, fisikotasun zoragarriz eta adierazmen dotorez Baccalàk sortutako denborazkanpoko ikuskizunek 2010etik ikusleak erakarri dituzte mundu guztian zehar. Irudimentsua, hunkigarria, irrigarria, bikote ikaragarri honek barre eragingo dizu antzokian ez ezik etxerako bidean ere. Nazioarteko 15 sari irabazi ditu, Cirque du Soleil saria barne.

Brillantes, tiernos, hilarantes... Inspirados por Chaplin, Keaton y las estrellas de las películas mudas, los espectáculos atemporales de fascinante fisicalidad y exquisita expresividad de Baccalà llevan deleitando audiencias de todo el mundo desde 2010. Imaginativo, emocionante, divertido, este asombroso dueto te tendrá riendo hasta mucho después de salir del teatro. Ganador de 15 premios internacionales, incluido el Cirque du Soleil.

«Batzuetan, ikuskizun bat hain da gozagarria, zaila izaten baita ez oihukatzea "Zoazte ikustera! Zoazte ikustera!". Horixe gertatzen da Pss Pss-rekin. Zoazte ikustera, zoazte».
Total Theatre

«A veces un espectáculo es una delicia tal que resulta difícil no soltar un efusivo "¡Vayan a verlo! ¡Vayan a verlo!" al escribir sobre él. Pss Pss es uno de esos espectáculos. Vayan a verlo, vayan»
Total Theatre

«Ikus-entzuleak xalotasun eta alaitasun hutsez beteriko emozioetan barrena gidatzen ditu. Maitasunezko eta laguntasunezko dantza ausart, sentsual eta oroitzapenez jositako honek hizkuntzatik harago jotzen du, eta haren alaitasunak eta irudimenak guztiz harrapatzen gaituzte».
Edinburgh Guide

«Transporta al público a través de un abanico de emociones llenas de inocencia y de pura alegría. Desenfadada, sensual y evocadora, esta dulce e ingenua danza de amor y amistad trasciende el lenguaje y su alegría e imaginación son totalmente cautivadoras»
Edinburgh Guide

65 min.
+9

ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN: Louis Spagna
SORTZAILE ETA ANTZEZLEAK / CREADORES E INTÉRPRETES: Camilla Pessi, Simone Fassari
LAGUNTZA ARTISTIKOA ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOA / AYUDANTE ARTÍSTICO Y DIRECCIÓN TÉCNICA: Valerio Fassari
ARGIZTAPEN DISEINUA / DISEÑO DE ILUMINACIÓN: Christoph Siegenthaler

baccala-compagnia.com
Baccala'-Compagnia @BaccalaCompagni



CLOWN

27
URRIA OCTUBRE
19:00

5€ (-12 años) / **12€** (adultos)

! **AZKEN ORDUKO LEIHATILA**
13-26 urte: %50 deskontua
TAQUILLA ÚLTIMA HORA
13-26 años: 50% descuento

GROWING YOUNG
DANTZAZ (EUSKADI)

Lau koreografo ezagun daude Dantzaz-en ikuskizun berriaren atzean. Argazki-sekuentzia batean, hainbat ikuspegitatik irudikatzen dituzte giza harremanak, konpainiaren arima mugiarazten duen espiritua islatuz.

Janis Claxton australiarrarena da *Une*. Haren duoek agertokira eramango dute ikus-entzulea, haren konplizitatea bilatuz eta behin-behineko aktore eta eszenografiaren funtsezko parte bihurtuz.
Daniele Ninarrello italiarrak osatuko du puzzle korala, *Lead* lanarekin. Dantzarien gorputzak migrazio mugimendu zabalago baten nodoak edo pistak balira bezala berrinterpretatzera gonbidatuko gaitu.
Itzik Galili sortzaile israeldar apartak 80 ikuskizun baino gehiago sortu ditu nazioarteko konpainiarik entzutetsuenentzat. Oraingoan, *Prelude for a wasted tear* aurkeztuko digu, komunitate-zentzua aldarrikatzeko alegatu bat.
Holandan bizi den Wubkje Kuindersma koreografo kamerundarrak itxiko du programa, *Youth* obrarekin. Beti guregan irauten duten gaztaroko «altxorrak» berreskuratzera gonbidatuko gaitu.

Cuatro reconocidos coreógrafos firman las piezas que conforman el nuevo espectáculo de Dantzaz, una secuencia de instantáneas que retratan las relaciones humanas desde diferentes perspectivas y reflejan el espíritu que mueve el alma de esta compañía.

La australiana Janis Claxton firma 'Une'. Sus dúos son los encargados de conducir al espectador hasta el escenario, buscando su complicidad y convirtiéndole en actor accidental o parte esencial de la escenografía.
El italiano Daniele Ninarello completa este puzzle coral con 'Lead', una propuesta que nos invita a reinterpretar el cuerpo de los bailarines como nodos o pistas de un movimiento migratorio más amplio.
El genial creador israelí Itzik Galili, autor de más de 80 obras para aclamadas compañías internacionales, presenta 'Prelude for a wasted tear', un alegato con el que reivindica un sentido de comunidad.
Wubkje Kuindersma, coreógrafa camerunesa afincada en Holanda, cierra el programa con 'Youth', invitándonos a recuperar esos "tesoros" de la juventud que siempre permanecen con nosotros.

75 min.

ZUZENDARITZA ARTISTIKOA / DIRECCIÓN ARTÍSTICA: Adriana Pous
KOREOGRAFIAK / COREOGRAFÍAS: Janis Claxton, Daniele Ninarello, Itzik Galili, Wubkje Kuindersma
DANTZARIAK / INTÉRPRETES: Pauline Bonnat, Riccardo Ciarpella, Karlijm Dedroog, Ioritz Galarraga, Thijs Hogenboom, Juliana Javier, Miren Liceaga, Fernando Luis, Jean-Baptiste Prieur-Capdevielle, Iker Rodríguez, Teresa Royo, Iker Sanz, Olaia Valle

dantzaz.net
Dantzaz Konpainia @DantzazK

JARDUERA PARALELOA: 34. orrialdea ikusi.
ACTIVIDAD PARALELA: ver página 34.



DANTZA DANZA

9
AZAROA NOVIEMBRE
20:30

15€ / 12€

AZKEN ORDUKO LEIHATILA
13-26 urte: %50 deskontua
TAQUILLA ÚLTIMA HORA
13-26 años: 50% descuento

DANTZA ZIRKUITUA
SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

IZOZTUTAKO HAIZEA BEZALA

TANTTAKA TEATROA (EUSKADI)

“Zazpi pausu daude teilatuaren ertzera”

Heriok hiru silaba ditu. Beldurra... Nazka... Arratsaldeko zortziak dira. Tiro baten hotsa entzun da. Neska bat korrika atera da farmaziatik. Bizikleta hartu eta atzera begiratu gabe eragiten die pedalei. Aitaren arnasa... Bost pausu nire ohera... Tabako-usaina. Emakume batek gomazko mahuka jarri du kotxearen ihes-hodian, eta atera itxi du. Norbaitek esan dizu arriskuan zaudela. Poliziaren sirenak entzuten dira han urrutian. Jolas egingo dugu eskolan bezala, ea nork jasaten duen mina gehien?

Lan honekin, abusuari buruzko trilogiari amaiera ematen dio Tanttaka Teatroak; aurretik izan dira “Muxua/un beso” eta “Giltzadun Etxea/La casa de la llave” obrak. Lan horiek ikusi ahal izan ditugu Gasteizko antzokien sarean, Fernando Bernuésen zuzendaritza bikainarekin.

“Hay siete pasos hasta el borde de la azotea”

Muerte tiene dos sílabas. Miedo... Asco... Son las ocho de la tarde. Suena un disparo. Una chica sale corriendo de una farmacia. Coge la bicicleta y pedalea sin mirar atrás. La respiración de mi padre... Cinco pasos hasta mi cama... El olor a tabaco. Una mujer coloca una manguera de goma en el tubo de escape de su coche y cierra la puerta. Alguien te avisa de que estás en peligro. Las sirenas de la policía se escuchan a lo lejos. ¿Jugamos a ver quién aguanta más el dolor como hacíamos en el colegio?

Con este trabajo, Tanttaka Teatro cierra la trilogía sobre el abuso, precedida por obras como “Muxua/un beso” y “Giltxadun Etxea/ La casa de la llave”, todas ellas bajo la impecable dirección de Fernando Bernués.

60 min.
eu

EGILEA / AUTOR: Rafael Herrero
ITZULPENA / TRADUCCIÓN: Aizpea Goenaga
ZUZENDARITZA ETA ESZENOGRAFIA / DIRECCIÓN Y ESCENOGRAFÍA: Fernando Bernués
ANTZEZLEAK / INTÉRPRETES: Nerea Elizalde, Tania Martin, Koldo Olabarri
ARGIZTAPENA / ILUMINACIÓN: Xabier Lozano
JANTZIAK / VESTUARIO: Ana Turrillas

tanttaka.com
Tanttaka teatroa



ANTZERKIA TEATRO

10
AZAROA NOVIEMBRE
20:30

18€ / 15€

AZKEN ORDUKO LEIHATILA
13-26 urte: %50 deskontua
TAQUILLA ÚLTIMA HORA
13-26 años: 50% descuento

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

NO TE CREAS LA VERDAD

TONI BRIGHT (MADRID)

***Volver a creer* ikuskizun ondoren Toni Bright gogoaren mago ospetsuak bere bigarren lanarekin dator berriro Barakaldora.**
Show zirraragarria, dibertigarria, dinamikoa eta oso parte-hartzailea: mentalista batek psikologia, trebetasun sozialak eta sugestioa nola erabiltzen dituen ikusiko dugu.
Zenbait galderak erantzuna izango dute *No te creas la verdad* ikuskizunean: Jar al gaitezke harremanetan espirituekin? Irakur al daiteke pertsonen gogoa eta haien erabakietan eragin?

Después de "Volver a creer", Toni Bright, uno de los más afamados magos de la mente, presenta éste su segundo espectáculo.
Un show impactante, ameno, dinámico y muy participativo, en el que se verá cómo un mentalista domina la psicología, las habilidades sociales y la sugestión.
Preguntas como ¿se puede contactar con los espíritus?, ¿se puede leer la mente de las personas e influir en sus decisiones? tendrán respuesta en "No te creas la verdad".

80 min.
+5
es

MAGOA / MAGO: Toni Bright

tonimentalista.com
@Toni Bright Madrid
@tonimentalista



MAGIA MENTALISMO

11
AZAROA NOVIEMBRE
19:00

18€ / 15€

MUGAK

KHAMI & KALAKAN (EUSKADI)

Khami kolektiboa Iraide Ansorenak eta Carlos Sagik sortu zuten. Kolektibo zabal eta askotarikoa da, hainbat motatako tradizio musikal eta artistikoak uztartzen dituena. Euskal artistentzako topagune bat, euskal herri-kulturaren identitate-marken eta munduko beste leku batzuetako adierazpen musikalen nahasketan arakatzen duena. *Bazzque World Sounds* izan zen haien lehen diskoa (2015), eta, orain, beren bigarren lana estreinatu dute, ahotsa eta perkusioak protagonista. Gainera, Kalakan taldearekin batera datoz, hau da, ibilbide luzeko talde batekin: 10 urtetik gora daramatzate agertoki gainean, eta hainbat artistarekin batera jo dute, hala nola Katia & Marielle Labeque, Madonna, Oreka TX, Kukai Dantza Konpainia, Juanjo Mena edo Ara Malikian, besteak beste.

***Mugak* lanean, tradizioa eta modernotasuna, ikerketa eta entretenimendua uztartzen dira. Ikuskizun honetan, txalapartaren, albokaren edo txirularen antzinako soinuak munduko beste leku batzuetako perkusio eta tresnekin nahastuko dituzte, musika elektronikoaren zertzeladak eta elementuak ere sartuta. Azken batean, proiektu hau esperientzia bakan horietako bat da.**

Khami, fundado por Iraide Ansorena y Carlos Sagi, es un colectivo amplio y variado, que interconecta tradiciones musicales y artísticas de diversa índole, un espacio de encuentro de artistas vascos que explora la mezcla de las señas de identidad de la cultura popular vasca con otras expresiones musicales de diferentes lugares del planeta. Tras su primer disco "Bazzque World Sounds" (2015), estrenan ahora su segundo trabajo en el que la voz y las percusiones como grandes protagonistas. Y lo hacen junto a Kalakan, con una relevante trayectoria de más de diez años durante los que han colaborado con innumerables artistas entre los que destacan Katia & Marielle Labeque, Madonna, Oreka TX, Kukai Dantza Konpainia, Juanjo Mena o Ara Malikian, entre otros.

"Mugak" aúna tradición y modernidad, investigación y entretenimiento. Un espectáculo donde se mezclan los ancestrales sonidos de la txalaparta, la alboka o la Txirula con diferentes percusiones e instrumentos de otros lugares del planeta, junto con pinceladas y elementos de la música electrónica, que hacen de este proyecto una experiencia singular.

90 min.

MUSIKARIAK / INTÉRPRETES: Angel Unzu, Iraide Ansorena, Carlos Sagi, Pierre Sangla, Jamixel Bereau, Xan Errotabehere

khamisounds.com
KHAMI

kalakan.eus
KALAKAN basque trad trio





MUSIKA MÚSICA

17
AZAROA NOVIEMBRE
20:30

15€ / 12€

! **AZKEN ORDUKO LEIHATILA**
13-26 urte: %50 deskontua
TAQUILLA ÚLTIMA HORA
13-26 años: 50% descuento

ÓSCAR, EL NIÑO DORMIDO

EL ESPEJO NEGRO (ANDALUCÍA)

